



Bergarako
Udala

Bergaran, 2025eko uztailaren 2an

BILDURIK

ALDE BATETIK: Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako Udaleko Alkate-Lehendakaria. Ekitaldi honekin dihardu M^a Concepción Ugalde Iceta Udal Idazkariaren laguntzaz.

ETA BESTETIK:

MARIA TERESA ARRIARAN OTAEGUI andrea,

ELIXABETE ARRIARAN BEISTEGUI andrea,

JON ARRIARAN BEISTEGUI jauna,

JESUS MARIA ARRIARAN OTAEGUI jauna,

ANA MARIA ARRIARAN OTAEGUI andrea,

JUAN MARIA OTAEGUI MURUA jauna,

ION OTAEGUI ARRIETA jauna,

ELIXABETE GONZÁLEZ IRIA andrea,

IBON GONZALEZ IRIA jauna,

MARIA VICTORIA GONZALEZ LASA andrea,

JAVIER BURGOS GUTIERREZ jauna,

ANA MARIA BARQUERO BORREGUERO andrea,

JESUS MARIA VALGAÑON GOMEZ jauna,

PARTE HARTZEN DUTE

Gorka Artola Alberdi jaunak Bergarako Udaleko Alkate-Lehendakari den aldetik jarduten du, aipatutako Udalbatzarrak 2025eko ekainaren 30ean horretarako berariaz eman dizkion



[Handwritten signatures and marks]

ahalmenak baliatuz -1. eranskina-. Alkateak egintza honetan Udal Idazkaria du lagun, M^a Concepción Ugalde Izeta andrea, egintza honen fede ematen duena.

María Teresa Arriaran Otaegui, Elixabete Arriaran Beistegui, Jon Arriaran Beistegui, Jesús María Arriaran Otaegui, Ana María Arriaran Otaegui, Juan María Otaegui Murua, Ion Otaegui Arrieta, Elixabete González Iria, Ibon González Iria, María Victoria González Lasa eta Javier Burgos Gutiérrez jaun-andreek beraien izenean, eskubidez eta interesaz dihardute.

Ana María Barquero Borreguero andreak, bere izenean eta interesaz, bai eta Antonia Borreguero Santano andrearen izenean ere; horretarako Botere Eskritura Notariala emana baitago 2021eko irailaren 15ean Roberto Oliver Puértolas notarioaren aurrean, horren 817 protokolo-zenbakiarekin - 2. eranskina-.

Jesús María Valgañón Gómez jaunak, "MOJASORO SL" merkataritza-entitatearen (IFK: B 75086736) izenean eta ordezkaritza dihardu, entitate horretako ahaldua den aldetik (2013ko apirilaren 9an Oñatin Mercedes Hernaiz Gomez Degano notarioaren aurrean emandako eskrituraren arabera - protokolo-zenbakia: 306; 3. eranskina-); eta MOJASORO SLren ordezkari den aldetik, IKERLEKU KANTOIAK SL merkataritza-sozietateak (IFK: B13934559) formalki eta berariaz baimendu dio hitzarmen hau sinatzeko, Oñatin, 2023ko ekainaren 22an Mercedes Hernaiz Gomez Degano notarioaren aurrean 741 protokolo-zenbakiarekin emandako baimenaren arabera.

Bi alderdiek **LANKIDETZA-HITZARMEN** hau sinatzeko beharrezko lege-gaitasuna aitortzen diote elkarri, honako aurrekari hauen arabera:

AURREKARIAK

LEHENENGOA: Hitzarmen honen xedea da Ikerleku 2-4 eta Bidekurutzeta 14 zenbakietan dagoen eraikina eraitsi eta berria eraikitzea ahalbidetzea, eta orube berean zegoen Zabala etxe zaharraren fatxadaren aurrealdea jartzea. Horretarako, jarduketa horiek gauzatzeko modua, egikaritze-epeak eta lurzoru publikoaren eta udal-ondarearen beharrezko okupazioak adostu beharko dira.

BIGARRENA: Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra 2009ko maiatzaren 25ean egindako batzarrean onetsi zuen behin betikoz Udalbatzarrek, Ingurumen-inpaktuaren Ebaluazioko Azterketarekin batera, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren urte bereko uztailaren 27ko alean argitaratu zen. Aurrerago, Plan Orokorren bi Aldaketa Puntual onetsi ziren; lehenengoa, Udalbatzarrek 2012ko azaroaren 12an egindako batzarrean, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren



Bergarako
Udala

2012ko abenduaren 17ko alean argitaratu zen; bigarrena, berriz, 2021eko azaroaren 29ko batzarrean onetsi zuen Udalbatzarrek, eta 2022ko urtarrilaren 12an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Udalbatzarrek 2013ko otsailaren 25ean egindako batzarrean, Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezia onetsi zen, urte bereko uztailaren 2an argitaratu zena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Aurrerago, Bergarako Udalak behin betikoz onetsi zuen Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren 1. Aldaketa, Udalbatzarrek 2018ko abenduaren 17an egindako batzarrean, eta 2019ko otsailaren 8an argitaratu zen aldaketa hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

HIRUGARRENA: Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziak eta ondoren onetsitako 1. Aldaketak gaur egun Bidekurutzeta kaleko 14. zenbakian eta Ikerleku kaleko 2. eta 4. zenbakietan dagoen eraikina ordeztzea ezartzen dute eta, horretarako, eraikin berriaren sotoaren zati baterako eta altuerako eraikuntzarako lerrokadurak ezartzen ditu. Eraikinaren profila ere finkatzen du, guztizko solairu kopuruarekin.

LAUGARRENA: Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko KATALOGOA dokumentuan, Balizko Arkeologia Gunearen barruan dago Bidekurutzeta 14ko eraikina, 3/68 erreferentziarekin, intereseko gune gisa, orube horretako zorupean Zabala etxe errenazentista altxatzen baitzen.

BOSGARRENA: "MOJASORO SL" merkataritza-entitateak, etorkizuneko eraikuntzaren sustatzailea den aldetik, Bergarako Bidekurutzeta 14ko eta Ikerleku 2-4ko eraikinaren jabari osoa du hitzartuta honako hitzarmen hau sinatzen duten jabeekin, etorkizunean eraikiko diren etxebizitzaren truke-kontratuen bidez eta, ondorioz, hitzarmen hau sinatzeko jabeen baimen formala eta berariazkoa du.

SEIGARRENA: Kontuan hartuta eraikina non dagoen, eraitsi beharreko bolumena handia dela eta eraiki beharreko eraikin berria ere handia dela, obrek afekzio nabarmenak izango dituzte inguruan, orubean jardun beharko duten kamioien eta makina astunen mugimenduagatik. Horregatik, Bergarako Udalak baimendu ahal izango diren lurzoru publikoaren eta ondare-lurzoruen (Seminarioko patioa) okupazioak finkatu dizkio honako hitzarmen hau sinatzen duen merkataritza-entitateari, bai eta okupazio-epeak eta obren exekuzio-fase ezberdinetan hartu beharko diren segurtasun-neurriak ere.



ZAZPIGARRENA: Bidekurutzeta kalearen eta lkerlekuko kantoiaren arteko alakan, eraikiko den eraikin berrian, hitzarmen honen xede diren eraikuntzen leku berean zegoen Zabala etxe zaharraren fatxada-aurrealdea muntatu nahi du Bergarako Udalak, PETRA S.Coop enpresak Bergarako Udalaren enkarguz egindako 2024ko Azaro-Abenduko Proiektu-Azterketan jasotzen diren aurreikuspenen arabera; alde biek aitortzen dute azterketa hori ezagutzen eta onartzen dutela.

ZORTZIGARRENA: 2023ko urriaren 23an egindako batzarrean, "UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA" onetsi zuen Bergarako Udaleko Udalbatzarrak, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 2023ko abenduaren 27ko alean argitaratu zen. Ordenantzaren ERANSKINEAN, A Epigrafeko SALBUESPENAK atalean, ondorengoa jasotzen da:

Eraikitze, errehabilitazio edo konponketa lanen ondorioz, jabari publikoko lur-okupazioa ematen denean obra-egilea udal-tasa ordaintzetik salbuetsita egongo da, eraikitze-lanak egiteko okupatzen duen lur publikoa aktuzio berdinean, berak ordainduta eta Udalaren irizpideak jarraituz, berrurbanizatu behar badu. Aipatutako okupazioa (eremua eta denbora nagusiki) Udalak finkatuko du.

Salbuespena izateko, okupatu den lur publikoa urbanizatu barik egotetik Udalaren irizpideen arabera urbanizatu egoerara igaro beharko da, halaber, okupatu den lur publikoa urbanizatuta balego, Udalaren irizpideen arabera berrurbanizatu beharko da

Ordenantza horrek ez du aipatzen obra partikularrengatik egiten den Udal Ondareko lurzorua okupazioa.

Adierazitako AURREKARIEN arabera, honako **LANKIDETZA-HITZARMENA** sinatzen dute alde biek, ondorengo estipulazioetan oinarrituta,

ESTIPULAZIOAK

LEHENENGOA: Hitzarmen hau LANKIDETZA HITZARMENTZAT hartuko da; izan ere, lkerleku 2 – 4 eta Bidekurutzeta 14ko egungo eraikinak eraistearen ondorioz sortuko den orubean aurreikusitako eraikin berriaren eraikuntza errazteko esku hartzen duten alderdien arteko akordioak jasotzen ditu, eta Bergaran indarrean dauden Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean eta Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezian finkatutako zehaztapenak errespetatuko ditu.

Beraz, ez da Hirigintza Hitzarmen bat, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarrian arautzen den bezala; izan ere, ez da hirigintza-antolamenduko hitzarmen bat, ez eta indarrean dagoen plangintza kudeatzeko eta gauzatzeko baldintzak ezartzen dituen



Bergarako
Udala

hirigintza-exekuzioko hitzarmen bat ere. LEHENENGO aurrekarian jasotzen den bezala, helburua da eraikin berria egiteko modua adostea eta beharrezkoak diren exekuzio-epeak eta lurzoru publikoaren eta udal-ondarearen okupazioak finkatzea.

Beraz, hau onartzeko ez da zertan bete behar Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarriaren 8. puntuan ezarritako tramitazioa.

BIGARRENA: Bidekurutzeta 14 - Ikerleku 2-4an dagoen eraikina ordeztzeko lanak errazteko, obrak bi fasetan egitea planteatzen da: lehenengoa, lehendik dagoen eraikina ERAISTEA; eta bigarrena, ERAIKIN BERRIA ERAIKITZEA.

1. FASEA: LEHENDIK DAGOEN ERAIKINA ERAISTEA.

"Majasoro SL" merkataritza-entitateak Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritzari baimena eskatu dio dagokion arkeologia-jarduera egiteko, dagokion arkeologia-kontrolako proiektua aurkeztu ondoren.

"Mojasoro, S.L." merkataritza-entitateak Bergarako Udalari eraikina eraisteko lizentzia eskatuko dio 2025eko uztailaren 4a baino lehen; eta horrekin batera, dagokion elkargo profesionalak ikus- onetsitako eraispén-proiektua aurkeztuko da, adierazita zentintzuk diren obretako teknikari zuzendariak eta haien segurtasun-koordinatzailea. Era berean, eraisteko proiektuarekin batera, oinarritzeko eraikuntza-proiektua aurkeztuko du.

Bergarako Udalak 2025eko uztailaren 11 baino lehen emango du Bidekurutzeta 14-Ikerleku 2-4ko eraikina eraisteko lizentzia. Eraiste-lanak jarraian hasiko dira, eta amaituta egon beharko dira 2025eko irailaren 8a baino lehen. Lizentzia emateko erabakiak honako baldintza hauek jasoko ditu, besteak beste, lurzoru publikoa eta udal ondareko lurzoru (Seminarioko patioa) okupatzeari dagokionez.

1. ERAISPEN-LANETAN ZEHA LURZORU PUBLIKOA OKUPATZEA:

Eraiste-lanak dirauten bitartean, Bidekurutzeta kaleko espaloia okupatu ahal izango da, eta oinezkoentzako 1,20 m-ko pasabide bat eta ibilgailuentzako pasabide bat jarriko dira; horretarako, beharrezkoa izanez gero, aldazio bat biseraz estalia jarriko da kale aldera. Une jakin batzuetan, hala nola Bidekurutzetako estalkiaren ertza eta fatxada eraistean, kalea gehiago okupatu ahal izango da, betiere Udaltzaingoa jakinean egonda eta horren baimenarekin. Halaber, Ikerleku osorik itxiko da, estua delako, eta Ostetako bidea eraikinaren atzeko aldean. Azken pasabide hau bakarrik itxiko da oinezkoen segurtasunerako beharrezkoa denean. Behin eraiste-lanak amaitu ondoren, eta exekuzio-proiektua idazteko eta obra hasteko aurreikusitako hilabeteetan, ondoriozko orubea hesitu



egin da 2,00 m-ko altuerako obra-hesi batekin, eta Ostetako bidetik Seminarioko patioarako arrapalarako sarbidea ere itxiko da. Horrela, lkerleku kantoia eta Ostetako bidea oinezkoentzat ireki ahal izango dira.

Orubea garbi mantenduko da, obra-hondakinik, obrako materialik eta makineriarik gabe, salbu eta Azterlan Geoteknikoa eta Azterketa Arkeologikoa egiteko beharko dena bere momentuan.

Kontuan hartuta Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Katalogoan Bidekurutzeta 14 eraikina jasotzen dela Balizko Arkeologia Guneen barruan, 3/68 erreferentziarekin, intereseko gune gisa -orube horren zorupean Zabala etxe errenazentista altxatzen baitzen-, bertan egingo diren esku-hartzeek 7/1990 Legearen 49. artikuluan xedatutakoa beteko dute:

- Aztarna arkeologikoak egon daitezkeela uste den eremu, orube edo eraikinetan, egin nahi diren obren jabeak edo sustatzaileak azterlan bat aurkeztu beharko du, orubearen edo eraikinaren balio arkeologikoari eta obra-proiektuan izan dezakeen eraginari buruzkoa.
- Azterketa egin ondoren, Foru Aldundiak erabakiko du proiektu arkeologikoaren beharra ote dagoen, eta, hori guztia ikusita, obra-lizentziaren aurreko baimena emango du.

Bergarako Udalak eraikina eraisteko lizentzia emango du baina aldezturik sustatzaileak Foru Aldundian aurkeztutako Azterketa Arkeologikoaren aldeko txostena izan beharko du.

2. ERAISPEN-LANETAN ZEHAR ONDARE-ZORUAREN OKUPAZIOA (SEMINARIOKO PATIOA):

Jarduketaren xede den lursailera sartzeko, Seminarioko patioaren hegoaldeko ertzetik egingo da, lbargarai kaletik sartuta. Kalea libreago mantentzeko, kamioiak aurrez aurre sartuko dira patioan okupatuko den eremuan, eta biraketa barrualdean egingo dute, handik jarduketa-xede den lurzatira atzerantz sartzeko.

Gaur egun Seminarioko patioan dagoen karpatik bao bat desmuntatuko da, obra egiteko kamioien eta gainerako makinen irisgarritasun- eta zirkulazio-baldintzak errazteko.

Behin karpa libratuta, eta Ostetako bideko sestraren eta Seminarioko patioa sestraren artean 4,95 metro inguruko kota-aldea dagoenez (149,50 - 144,55, planoaren arabera), behin-behineko arrapala bat eraiki beharko da, 5,00 metro inguruko zabalerakoa, goiko kotara iritsi ahal izateko. Arrapala hori patioaren hegoaldeko itxituraren ondoan ezarriko da, eta okupazioaren zabalerara agiri honi 5. eranskin gisa erantsitako krokis-planoan agertzen dena izango da.





Bergarako
Udala

Aldagela-etxoletan eta mugakide diren lursailetan (eskolak erabilitako patioa eta baratzea) segurtasuna eta erabilera bermatzeko beharrezko neurriak hartuko dira.

Seminarioko patioetik Ibargarai kalera doazen kamioien irteerei dagokienez, Udaltzaingoak ezarritako jarraibideei jarraituz, kamioi zurrinak (artikulatu gabeak) Udal Pilotalekuaren noranzkoan aterako dira eta Zurradero kaletik Ibargaraira itzuliko dira hirigunetik irteteko. Artikulatuak, berriz, Ibargaraiako biribilgunearen noranzkoan aterako dira. Maniobra horiek egiten diren bitartean, entitate sustatzaileak langile bat jarriko du maniobra-eragiketarako kontrolatzeko, langile hori izanik inguruko oinezkoen eta trafikoaren segurtasuna bermatzeko arduraduna, eta Udaltzaingoarekin koordinatuko dute ibilgailu artikulatu eta berezien irteerak. Halaber, ikasturtean zehar ezin izango da sarrerarik/irteerarik/maniobrarik egin Aranzadi Ikastolako sarrera-irteeren ordutegian.

Seminarioko patioa okupatuko da eraispén-lanak hasten direnetik 2025eko irailaren 8an amaitu arte. Obra-fase honetan ikasleek patioa okupatzerik aurreikusten ez denez, okupatu beharreko azaleraren itxiera 2,00 m-ko altuerako obra-motako hesiarekin mugatuko da, eta adierazitako datan eraisteko lanak amaitu ondoren desmuntatuko da. Karpa mendebaldean eta hegoaldean inguratuz, 1,00 m-ko altuerako hormigoizko New Jersey asimetrikoak jarriko dira, obrako kamioiek kolpatu ez dezaten. Gainontzeko itxitura, karparen eta Ostetako biderantz doan euste-hormaren artekoa, txapazko edo antzeko metalezko itxitura normal bat izango da, 2,00 m-ko altuerakoa.

Eraisteko lanak amaitu ondoren, hegoaldean karparen amaieraren eta patioaren itxituraren artean geratuko den hutsunea obrako hesi batez itxiko da. Espazio horretan gorde ahal izango dira karparen mendebaldeko aldean jarri izandako New Jerseyak, eraikuntza-fasean berririo jarri ahal izateko (6. eranskin gisa plano bat erantsi da, non zehaztuko den zein izango den Seminarioko patioaren okupazioa eraispén lanetatik eraikin berria eraikitzen hasi arte).

Eraispén-lanetan hesitutako espazioa kamioien maniobra-eremu gisa bakarrik erabiliko da, eta langileen etxolen okupazioa baino ez du izango.

Kamioien itxaronaldia -beharrezkoa izanez gero- patioan mugatutako espazioaren barruan egingo da, inoiz ez Ibargarai kalean.

HIRUGARRENA: Eraispén-lanak hasi baino lehen, entitate sustatzaileak, Udalarekin adostuta, notarioaren presentzia-akta bat egingo du eraispén-lanek eta eraikin berria eraikitzeko lanek eragina izan dezaketen espazio eta eraikinetan. Sustatzaileak ordainduko ditu notario-gastuak.



LAUGARRENA: ERAIKIN BERRIA ERAKITZEA.

ZAZPIGARREN aurrekarian adierazi den bezala, Bidekurutzeta kalearen eta Ikerleku kantoia-
arte alakan, eraikiko den eraikin berria, hitzarmen honen xede diren eraikuntzen leku berean
zegoen Zabala etxe zaharren fatxada-aurrealdean muntatu nahi du Bergarako Udalak, "PETRA
S.Coop." enpresak Bergarako Udalaren enkarguz egindako 2024ko Azaro-Abenduko Proiektu-
Azterketan jasotzen diren aurreikuspenen arabera; alde biek aitortzen dute azterketa hori
ezagutzen eta onartzen dutela.

"MOJASORO, S.L." sustatzaileak 2026ko urtarilaren 8a baino lehen eskatuko du eraikin berria
eraikitze lizentzia. Eskabidearekin batera aurkeztuko dira Exekuzio Proiektua -Arkitektoen
Elkargoak ikus-onetsita-, exijitutako dokumentu guztiekin, eta Azterketa Arkeologikoari buruzko
Foru Aldundiaren aldeko txostena.

Oinarrizko eta Exekuzio Proiektuek barne hartuko dituzte Zabala Etxearen portadaren gainjartzea,
eta azken proiektuak portada eusteko eta ainguratzeko aurreikusitako sistemak, PETRA
Kooperatibaren jarraibideei jarraituz.

Bergarako Udalak 2026ko otsailaren 6a baino lehen emango du eraikin berria eraikitze lizentzia,
eta, besteak beste, lurzoru publikoa eta udal ondareko lurzorua (Seminarioko patioa) okupatzeko
baldintzak ezarriko ditu.

1. ERAIKIN BERRIA ERAKITZEKO OBRETAN ZEHAR, LURZORU PUBLIKOA OKUPATZEA:

Etorkizuneko eraikinaren eustormak eta zimenduak eraikitze aurreikusitako sistema
ezagutzen ez dugunez, ezin da zehatz zehaztu erakunde sustatzaileak lurzoru publikoan
zenbaterainoko okupazioa aurreikusten duen. Nolanahi ere, okupazio horretan obra-fase
hauek hartu beharko dira kontuan:

- HONDEATZE-LANETAN ZEHAR ETA ERAIKINA BIDEKURUTZETA KALEKO KOTARAINO ERAKITZEKO
LANETAN ZEHAR LURZORU PUBLIKOA OKUPATZEA. Obraren fase honetan, Bidekurutzeta
kaleko espaloia-
ren okupazioa mantenduko da, eraisteko ezarritako baldintza berak
errespetatuz, eta kantoian pasabidea itxiko da.
Ikerleku osorik itxiko da, estua delako, eta Ostetako bidea eraikinaren atzeko aldean.

- EGITURA ERAKITZEKO OBRETAN ZEHAR LURZORU PUBLIKOA OKUPATZEA. Egitura eraikitzen
den bitartean, eraikin berriaren 1. solairuko kotaraino Bidekurutzeta kaleko espaloia-
ren okupazioa mantenduko da. Behin solairu hori hormigoiztatu ondoren,
aldamio estali bat jarri beharko da lehenengo solairuaren kotan eta biserarekin kantoian,
eraikuntza-prozesu osoan zehar oinezkoen pasabidea ireki ahal izateko. Ostetako
bidean, plaza-
aren egitura egin arte, hondeatze-lanetarako proposatutako itxitura





Bergarako
Udala

mantenduko da. Behin kota hori hormigoiztatu ondoren, aldamio estali bat jarri beharko da, edo Segurtasun eta Osasuneko koordinatzaileak zuzendaritzarekin eta sustatzailearekin batera ezarritako beharrezko segurtasun-neurriak, eraikuntza-prozesuaren gainontzekoan Ostetako bideko oinezkoen pasabidea irekita egon ahal izateko gutxienez 2,00 metroko zabalerarekin, horrela Iparragirre kalea Xabier María Muniberekin lotzeko. Proposatutako aldamioak eraikinaren altuera osoan mantenduko dira gutxienez fatxadak amaitu arte.

Eraikin berriaren mendebaldean irtengo den plazatxoa eta Ostetako bidea amaieran zolatzeko lanetarako, pasabide hori itxi egin beharko da hilabete inguruan.

Sotoko sabaiko lauzatua eraiki ondoren, altuerako eraikinarekin jarraitzen ez duen zatia materialak biltzeko eta hondakinen edukiontziak kokatzeko erabiliko da. Obra-etxolak ere jarri ahal izango dira, eta, horrenbestez, Seminarioko patioaren esparru hesitua edozein motatako okupaziotik libre utziko da.

2. ERAIKIN BERRIA ERAIKITZEKO LANETAN ZEHA, SEMINARIOKO PATIOAREN ZATI BAT OKUPATZEA:

Eraiste-lanetarako finkatu diren berberak izango dira jarduketa-xede den lurzatirako sarbidea, Seminarioko patioaren okupazioa eta kamioien mugimenduak. Karpa mendebaldetik babesteko eta patioaren barruan kamioiak maniobratzeko lekua ixteko, New Jertseak jarriko dira berriz. Patioaren itxitura ikasleen jolasgunearekin muga egiten duen aurrealdean egingo da, 4,00 m-ko altuerako hesiarekin; 4 metro horietatik 2 metro hesi itsuak izango dira, eta beste 2 metroetan, obra egiteko aurreikusitako denbora guztirako behar bezala ainguratuta geratuko den beste edozein itxitura-sistema instalatuko da.

Obraren fase honetan Seminarioko patioan okupatu beharreko eremua ezin izango da erabili materialak biltzeko. Ezta hondakinak biltzeko edukiontziak jartzeko ere, ezta obra-etxoletarako ere, salbu eta lurak mugitzeko lanak iraun bitartean eta egitura eraikitzeko obrek sotoko estalkiaren lauzatua amaitu arte.

Kamioien itxaronaldia -beharrezkoa izanez gero- patioan mugatutako espazioaren barruan egingo da, inoiz ez lbargarai kalean.

BOSGARRENA: Eraiste-lanak hasten direnetik eraikina bukatu eta espazio publikoak eta udal ondarea berrurbanizatu arteko epea 36 hilabetekoa izango da. Epe horren barruan egin beharko dira Bidekurutzeta, Osteta bidea eta Ikerleku kaleak lehengoratzeko obrak, bai eta eraikin berriaren obrak gauzatzeak Seminarioko patioan jasandako eraginak lehengoratzeko ere, eta jarritako hesiak eta babes-elementuak kenduko dira.

Bergarako Udalak aipatutako 36 hilabeteetan Seminarioko patioa okupatzeagatik 250.000 euro ordaintzeko exijituko dio sustatzaileari. Zenbateko hori eraikin berria egiteko lizentziaren eskaerarekin batera ordainduko da, eta, nolana ere, eraisteko udal-lizentzia lortu eta 6 hilabete igaro baino lehen.

SEIGARRENA: Obraren amaieran, lurzoru publikoa okupatzeagatik sortzen den tasaren orde, okupatutako espazioak berrurbanizatuko dira, ZORTZIGARREN AURREKARIAN jasotako Ordenantzan adierazitako baldintzetan. Ordezkapen hori egiteko Udalak kontuan hartuko du AURREKO ESTIPULAZIOAN finkatzen den gehieneko 36 hilabeteko epea. Epe hori amaitzen denetik aurrera, une horretan indarrean dauden tasak aplikatuz sortzen diren lurzoru publikoaren eta ondare-lurzoruaren okupazioak kobratuko dizkio Udalak sustatzaileari, salbu eta gerora sortutako zirkunstantziek (segurtasun-arrazoiak, eraikin berria egikaritzea edo obra gauzatzearen ondoriozko beste batzuk) aipatutako exekuzioa aurreikusitako epeetan egitea eragotziko balute.

Tasaren ordaintetaren orde egin beharreko urbanizazio-lanak, udal-zerbitzu teknikoen oniritzia beharko dutenak, honako hauek izango dira:

- 1) Ikerleku zolatzea, horren zabalera osoan, Iparragirre kalearekin bat egin arte, eta Osteta bidea zolatzea, horren luzera eta zabalera osoan, Xabier María Munibe plazaraino. Zolatze-lan hori Iparragirre kalean erabilitako galtzada-harriarekin egingo da. Zoladura bera erabiliko da eraikin berriaren atzealdean (mendealdean) sortzen den plazarxoan.
- 2) Seminarioko patioan okupatutako espazioaren zoladura egokitzea. Egokitze-lan hori egingo da eraipen- eta eraikuntza-obren ondorioz erabileragatik jasandako narriadura konpontzeko eta espazio hori lehengo egoerara itzultzeko.
- 3) Ostetako bideko sestraren eta Seminarioko patioaren sestraren arteko arrapala kentzea, eta arrapalak hartutako espazio hori egokitzea eta obrak hasi baino lehenagoko egoerara lehengoratzeko.

ZAZPIGARRENA:

Bergarako Udalak lortu nahi duen helburua bete ahal izateko, hau da, Zabala Etxearen portada eraikuntza-elementu propio gisa instalatzea, proiektatutako eraikin berriarekiko independente, "MOJASORO SL" Merkataritza Entitatea behartuta dago eta konpromisoa hartzen du behar besteko zabalera eustorma edo zimendatze-horma egiteko, bertan bai eraikinaren itxitura perimetrala bai Zabala fatxada ere oinarritu ahal izateko.

Helburu hori betetzeari dagokionez, bi alderdiek honako baldintza hauek ezarri dituzte:



Bergarako
Udala

Zabala Etxeko portadaren instalazioa Bergarako Udalaren kontura izango da. Horretarako, xede horri dagozkion gastuak ordainduko ditu (proiektu teknikoa idaztea, portada muntatzea eta instalatzea). Era berean, Bergarako Udalak bere gain hartuko du aipatutako portadaren mantentze-lana (ohiko edo ezohiko konponketa-gastuak barne, edo inoiz hura kendu edo ordeztzeko gastuak ere).

"MAJASORO SL" merkataritza-entitateak bere kontura eta kargura bakarrik gauzatuko du eraikinaren egitura, non Udalarik aukera emango dion Zabala Etxearen portada altxatzeko behar diren ainguraketak edo euskarriak instalatzeko. Zabala etxeko portadako ainguraketa horiek eraikin berriari eusteko lanak Bergarako Udalak egingo ditu, bere kontura eta kargura. Lan horiek PETRA enpresak edo Bergarako Udalak kontratatuko duen espezializatutako beste enpresa batek gainbegiratu beharko ditu. Alde horretatik, Bergarako Udalaren kontura izango dira eraikin berrian dauden ainguratze edo finkapen horien geroko mantentze-lanak eta ainguratze horien tenkatzearen mantentze-lanak.

Etxebizitza-eraikin berriaren itxiturak eta estalkia behar bezala altxatu eta egin ondoren hasiko da Zabala Etxeko portada muntatzeko edo instalatzeko prozesua. Itxitura eta jasotze hori 12 hilabeteko epean gauzatu beharko da -zuinketa-akta formalizatzen denetik zenbatzen hasita- eta Zabala Etxearen portadaren muntaketa eta instalazioa eraikin berria eraikitzeke obren aurretik edo aldi berean amaitu beharko da.

Emandako eraikuntza-lizentziaren arabera eraikin berriaren exekuzioa behar bezala amaitu ondoren, oraindik Zabala Etxearen portadaren instalazioa amaituta ez badago, eta "MOJASORO SL" merkataritza-entitateak Udalarik eraikin berria lehen aldiz okupatzeko dagokion lizentzia eskatuko balio, lizentzia eman egin beharko zaio, dagokion Obra Berria Deklaratzeko, Jabetza Horizontalaren Araubidean Konfiguratzeko eta aipatutako Zortasunak Eratzeko eskritura eskuratu ahal izateko.

Gerora sortutako zirkunstantziek (segurtasun-arrazoiak, eraikin berria egitea edo obra gauzatzearen ondoriozko beste batzuk) Bergarako Udalarik Zabala Etxeko portada eraikin berriko obrak amaitu aurretik edo aldi berean instalatzea eragozten badiote, bost hilabete atzeratu ahal izango da, lehen erabilerako lizentzia ematen denetik zenbatzen hasita.

ZORTZIGARRENA: Bergarako Udalak ez du inolako partaidetza-koefizienterik izango eraikin berriaren Obra Berriaren Deklarazioan.

BEDERATZIGARRENA: Obra Berriaren Deklarazioan, eraikin berriak hartzen ez dituen lursail pribatuak doan lagako zaizkio Bergarako Udalarik. Halaber, eraikinaren mendebaldean garajeen gainean sortuko den plaza txoan erabilera publikoko zortasuna ezarriko da. Estipulazio honetan zehaztutako transmisioen ondorioz sortutako gastuak entitate sustatzaileak ordainduko ditu.

Eta adierazitakoarekin eta hitzartutakoarekin osorik bat eginez, alderdiek hitzarmen honen hiru ale sinatzen dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.



Izpta: Maria Teresa Arriaran Otaegui



Izpta: Elixabete Arriaran Beistegui



Izpta: Jon Arriaran Beistegui



Izpta: Jesus Maria Arriaran Otaegui



Izpta: Ana Maria Arriaran Otaegui




Izpta: Juan Maria Otaegui Murua



Izpta: Ion Otaegui Arrieta



Izpta: Elixabete González Iria



Izpta: Ibon Gonzalez Iria



Izpta: Maria Victoria Gonzalez Lasa



Izpta: Javier Burgos Gutierrez



Izpta: Ana Maria Barquero Borreguero



Izpta: Jesus Maria Valgañon Gomez



Izpta: Udal Idazkaria: Mª Concepción Ugalde Iceta

Izpta: Alkatea: Gorka Artola Alberdi





En Bergara, a 2 de julio de 2025

REUNIDOS

DE UNA PARTE: Don GORKA ARTOLA ALBERDI, Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Bergara.
Actúa asistido en este acto por la Secretaria del Ayuntamiento, M^a Concepción Ugalde Iceta.

Y DE LA OTRA:

DOÑA MARÍA TERESA ARRIARAN OTAEGUI,

DOÑA ELIXABETE ARRIARAN BEISTEGUI,

DON JON ARRIARAN BEISTEGUI,

DON JESÚS MARÍA ARRIARAN OTAEGUI,

DOÑA ANA MARÍA ARRIARAN OTAEGUI,

DON JUAN MARÍA OTAEGUI MURUA,

DON ION OTAEGUI ARRIETA,

DOÑA ELIXABETE GONZÁLEZ IRIA,

DON IBON GONZÁLEZ IRIA,

DOÑA MARÍA VICTORIA GONZÁLEZ LASA,

DON JAVIER BURGOS GUTIERREZ,

DOÑA ANA MARÍA BARQUERO BORREGUERO,

DON JESUS MARÍA VALGAÑÓN GÓMEZ,

INTERVIENEN,

D. Gorka Artola Alberdi actúa en su condición de Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Bergara, en virtud de las facultades que expresamente le han sido otorgadas para ello por la

citada Corporación, en sesión plenaria de fecha 30 de junio de 2025 -anexo 1-. Actúa asistido de la Secretaria Dña. Mª Concepción Ugalde Iceta, que da fe del acto.

Dª María Teresa Arriaran Otaegui, Dª Elixabete Arriaran Beistegui, D. Jon Arriaran Beistegui, D. Jesús María Arriaran Otaegui, Dª Ana María Arriaran Otaegui, D. Juan María Otaegui Murua, D. Ion Otaegui Arrieta, Dª Elixabete González Iria, D. Ibon González Iria, Dª María Victoria González Lasa y D. Javier Burgos Gutiérrez, en su propio nombre, derecho e interés)

Dª Ana María Barquero Borreguero, en su propio nombre derecho e interés, y en el de Dª Antonia Borreguero Santano, en virtud de Escritura Notarial de Apoderamiento otorgada al efecto el pasado 15 de septiembre de 2021 ante el Notario D. Roberto Oliver Puértolas bajo el número 817 su protocolo -anexo 2-.

D. Jesus María Valgañón Gómez, en nombre y representación de la Entidad Mercantil "MOJASORO SL", con CIF B 75086736, en su condición de Apoderado de la misma, en virtud de Escritura otorgada el pasado 9 de Abril de 2013 en Oñati ante la Notario Dª Mercedes Hernaiz Gomez Degano, bajo el número 306 de su protocolo -anexo 3-, y en dicha condición de representante de MOJASORO SL como autorizado formal y expresamente por la mercantil IKERLEKU KANTOIAK SL, con CIF B13934559 para suscribir el presente convenio conforme a autorización concedida el pasado 22 de junio de 2023 en Oñati ante la Notario Dª Mercedes Hernaiz Gomez Degano, bajo el número 741 de su protocolo -Anexo 4-.

Ambas partes se reconocen mutuamente capacidad legal necesaria para celebrar el presente **CONVENIO DE COLABORACIÓN**, de acuerdo con los siguientes

ANTECEDENTES

PRIMERO: El objeto del presente convenio no es otro que el de posibilitar la materialización del derribo y posterior construcción del nuevo edificio de Ikerleku 2-4 y Bidekurutzeta 14, junto con la instalación de la portada de la fachada de la antigua casa Zabala que se emplazaba en el mismo solar, consensuando el modo de realizar, los plazos de ejecución y las ocupaciones de suelo público y de patrimonio municipal necesarios.

